

Año LVIII. urtea

141 - 2026

Urtarrila-ekaina

Enero-junio



FONTES LINGVÆ VASCONVM STVDIA ET DOCUMENTA

SEPARATA

Euskarazko hizkuntza-jolasak

Oroitz Jauregi, Irantzu Epelde

Sumario / Aurkibidea

Fontes Linguae Vasconum. Studia et Documenta

Año LVIII. urtea - N.º 141. zk. - 2026

Urtarrila-ekaina / Enero-junio

ARTIKULUAK / ARTÍCULOS / ARTICLES

Poetika feministen lehen harria euskal literaturan: Amaia Lasaren hastapeneko olerkigintza Ane Arrastoa Villagran	9
Euskarazko hizkuntza-jolasak Oroitz Jauregi, Irantzu Epelde	41
Erdialdeko euskararen presentzia Irungo gazteen euskaran Alexander Artzelus, Diego de Alba	71
Maskulinitate eta feminitate ereduak Ramon Saizarbitoriaren ipuingintzan Nagore Fernandez-Zabala	121
Egitura arazleak mendebaldeko euskaraz: <i>arazo eta eragin</i> Jon Etxebarria Zarandona	149
Initial peaks and final contours in wh-questions from Irun Nerea Delgado	181
Aditz trinkoen osakeraren gaineko proposamen berri bat Aitor Lizardi Ituarte	211
Gazteen hizkuntza hautuak eta euskararen erabilera ahozko komunikazioan: Durangoko kale-inguruneko azterketa Ane Gabikagogeaskoa Pagonabarraga, Asier Romero Andonegi, Mari Mar Boillos Pereira	247
Los prejuicios del hablante monolingüe de español ante el fenómeno de alternancia de código en el discurso oral de los hablantes bilingües de euskera-español Dara Acosta Vizcaíno, María Nayra Rodríguez Rodríguez	273
Idazlanak aurkezteko arauak / Normas para la presentación de originales / Rules for the submission of originals	307

Euskarazko hizkuntza-jolasak

Variantes lúdicas en euskera

Ludlings in Basque

Oroitz Jauregi

Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU)

oroitz.jauregi@ehu.eus

<https://orcid.org/0000-0001-7027-3387>

Irantzu Epelde

CNRS IKER-UMR 5478

irantzu.epelde@iker.cnrs.fr

<https://orcid.org/0000-0003-3350-4048>

DOI: <https://doi.org/10.35462/flv141.2>

CRedit taxonomia

Irantzu Epelde: Kontzeptualizazioa; Analisi formala; Ikerketa; Metodologia; Idazketa – jatorrizko eskuizkribua; Idazketa – berrikuspina eta edizioa. **Oroitz Jauregi:** Kontzeptualizazioa; Analisi formala; Ikerketa; Metodologia; Idazketa – jatorrizko eskuizkribua; Idazketa – berrikuspina eta edizioa.

Eskerrik asko Beñat Oihartzabal, Ekaitz Santazilia, Ibon Gaztañazpi, Varun de Castro-Arrazola eta Bill Had-dicani lan hau egin bitartean bidelagun izateagatik eta horren eskuzabal jokatzegatik. Eskerrik zintzoenak gure lekukoei ere. Era berean, artikulua berrikusketa egin duten bi ebaluatzaileei ere gure esker ona adie-razi nahi diegu, testua hobetzeko akuilu izan direlako, dudarik gabe. Lan hau ondoko diru-laguntzari esker garatu da: ANR (ANR-22-CE54-0012 – To2No).

Jasotze data: 2025/09/16. Behin-behineko onartze data: 2025/11/16. Behin betiko onartze data: 2026/05/14.



Lan hau *Creative Commons Aitortu-EzKomertziala 4.0 Nazioartekoa* lizentzia baten mende dago.

LABURPENA

Artikulu honetan, munduan zehar deskribatu izan diren hizkuntza-jolasen nolakotasunak aipatu ondoren, euskarari begiratu zaio. Euskal Herrian aipatu izan da hantemenka hizkera sekretuen eta hizkuntza-jolasen gaia, baina orain arte ez da egon saio sendorik horien dokumentazio- eta deskribapen-lana egiteko. Telebista-saioetatik eta landa-lanetik ateratako datuetatik abiatuta, euskarazko hizkuntza-jolasak jaso ditugu; *apaepe* izendapena eman diogun hizkeraren deskribapena egiteaz gain, hizkera-molde hori sortzean fonologia eta prosodiak duten zeresana nabarmendu dugu.

Gako hitzak: hizkuntza-jolasak; apaepeka; fonologia; prosodia; euskara.

RESUMEN

En este artículo se exponen algunas características de las variantes lúdicas que se han descrito a lo largo del mundo, para seguidamente centrarnos en el caso del euskera. Si bien es cierto que se pueden encontrar menciones a esta variedad en euskera, hay que señalar que hasta la fecha han recibido muy poca atención y apenas han sido descritas. A partir de datos extraídos de programas de televisión y de trabajo de campo, hemos podido crear un primer corpus. Tras elaborar una descripción de la variedad que hemos denominado *apaepe*, se ha puesto el foco en el papel que juegan tanto la fonología como la prosodia en la producción de la misma.

Palabras clave: variantes lúdicas; apaepeka; fonología; prosodia; euskera.

ABSTRACT

This article describes some features of the ludlings that have been described throughout the world, focusing on Basque. Although references to these language varieties can be found in the Basque literature, to date, they have received very little attention and have hardly been described. Based on data extracted from TV shows and recent fieldwork, we have compiled the first corpus in Basque. After having described the variety called *apaepe*, we have focused on the role played by both phonology and prosody in its production.

Keywords: ludlings; apaepeka; phonology; prosody; Basque.

1 SARRERA. 2 HIZKUNTZA-JOLASAK. 2.1 Izendapenaz. 2.2 Hizkuntza-jolas motak. 3 ALDERDI FONOLOGIKOARI BEGIRA. 4 EUSKARAZKO HIZKUNTZA-JOLASAK. 4.1 Atzekoz aurrera hizketan euskaraz. 4.2 Hotsak aldatzea, hitz bateko hotsak aldatuz. 4.3 Euskarazko «apaepe» hizkuntza-jolasa. 5 OHARRAK EUSKARAZKO FONOLOGIAZ ETA PROSODIAZ. 5.1 Fonologiaz. 5.2 Prosodiaz. 6 ONDORIOAK. 7 ERREFERENTZIAK.

1 SARRERA

Jakina da ezin baztertuzko funtzioa betetzen duela solaskideak hizketan. Zenbait kasutan, gainera, gerta liteke solaskideak bakarrik ez beste inork ulertzeko moduan esan nahi izatea zerbait; hau da, solaskideari modu eksklusiboan adierazi nahia gure mezua. Horretarako, baliteke hiztunak (mezuaren igorleak) kode bereziren bat hautatzea, solaskideak ere ezagutzen duen kode bereziren bat. Kode berezi horietako bat hizketa sekretuek osatzen dute. Eguneroko hizkuntzatik aldentzeko hizketa-modu bereziak aztertu izan dira euskaran, errituertarako hizkuntzen ikerketaren bidez (Irurtzun, 2023). Irurtzunen arabera, erritu supernatural bat egikaritzeko norberaren hizkuntza hein batean doitzea «askoz ohikoagoa» da hizkuntzaz aldatzea baino (Irurtzun, 2023, 521. or.). Guk aztertu dugun hizkerak ere norberaren hizkuntza doitzen du, eta hori egiteko patroia jakin batzuk jarraitzen dira hizketan, ez da nolanahi egiten.

2 HIZKUNTZA-JOLASAK

Munduan zehar asko izan dira deskribatu diren hizkuntza-jolasak. Euskal Herrian ere aipatu izan da han-hemenka bibliografian, baina orain arte ez da egon deskribapen saio sendorik hizkera horien dokumentazio-lana egiteko. Ahalegin horretan, honako atalak izango ditu artikulua honek: Sarreraren ondotik (§ 1) hizkuntza-jolasen izendapenez (§ 2.1) eta motez (§ 2.2) arituko gara lehenik; alderdi fonologikoari begiratuko diogu ondoren (§ 3), doitze fonikoa ekoizpenean nola gertatzen den ikusteko; segidan, euskarazko hizkuntza-jolasak aipatuko ditugu (§ 4), eta gero euskarazko

hizkuntza-jolasen fonologia eta prosodia (§ 5). Azkenik, ondorio moduan, bukaerako ohar batzuk egingo ditugu (§ 6).

Hizkuntza-jolasak deitu ditugunak hizkuntzarekin jolas egiteko moldeak dira. Hizkuntzaren egitura ohikoak aldatuta hizkera bereziak sortzen dira, Davisen (1993, 1. or.) ondoko aipuak adierazten duen moduan: «The term *language game* refers to a fairly widespread language play phenomenon in which phonological forms of words are systematically altered so as to disguise what they are. Other terms that are sometimes used instead of language games are *secret languages*, *disguised speech*, *play-languages*, and *ludlings*». Hizkuntzaren elementu fonologikoen manipulazioaren bitartez, hizkuntza arruntean hitzek duten itxura eraldatu egiten da eta gehitu daiteke esanahia ez dela aldatzen (de Araujo & Agostinho, 2014, 267. or.). Gehienetan edo ia beti elementu fonologikoen eraldaketa gertatzen da, eta ez morfologikoa (McCarthy & Plénat, 1991).

De Araujo eta Agostinhoren lanean (2014) esaten da hizkuntza arrunteko formek era askotako aldaketak izaten dituztela, esaterako: silaba txertaketak hitzaren edo silaben hainbat posiziotan, silabatik harago doazen forma kanonikoen txertaketa, hotsen ordena-aldaketak eta alderantzizko hurrenkeran ahoskatzea. Edozein delarik ere hizketa arrunta aldatzeko moldeak eta hortik sortzen den forma berria, esanahia ez da aldatzen, adierazi nahi dena bere horretan gordetzen da.

2.1 Izendapenaz

Hizkuntzaren elementuak aldatuta hizketa-molde bereziak sortzea aski fenomeno hedatua da munduko hizkuntzetan. Era honetako baliabideak erabiltzen dituztenen helburutzat hauek aipatu ditugu: ingurukoek ulertu nahi ez izatea, hizketaldiari sekretuzko kutsua ematea eta askotan jolasaren zantzua ere ematea. Helburu horien azterna edo ideia antzeman daiteke era honetan sortutako hizketa-moldeek munduan zehar hartu dituzten askotariko izenetan. Horietarik zenbait dira *secret languages*, *play languages*, *alternate languages*, *alternative languages*, eta denetan orokorrena litzatekeen *language games*. Hizkuntzaren erabilera modu jostarian egiten dela agerian uzten duen *ludling* terminoa ere aski zabalduta da. *Ludling* lehen aldiz Laycockek erabili zuela jasotzen da Piñerosen (1998, 61. or.) lanean eta kontzeptua ulertzeko definizioa gehitzen du:

A ludling is [...] the result of a transformation or series of transformations acting regularly on an ordinary language text, with the intent of altering the form but not the content of the original message, for purposes of concealment or comic effect (Laycock, 1972, 61. or.).

Aipuan alderdi komikoa aipatzen da, baita *concealment* hitza ere, gordetzearekin, ezkutetzearekin, edo ez ulertzearekin lot dezakeguna. Beraz, jolasaren alderdia, kode-sekretutasuna, kodea ezagutzen ez duenak ez ulertzeko nahia dira hizkera-molde hori erabiltzen duenaren xedeak.

Izendapenarekin jarraituz, deigarria da elementu fonologikoen manipulazioaren bitartez sortutako hizkuntzak izendatzeko erabili izan diren zenbait deitura. Jakin-garria da horietarik askok animalien hizkeratzat hartu izana. Ingelesezt, adibidez, hain ezaguna den *pig latin* izendapena, ‘txerrien latina’, aipatzen da. Alemanez ere (Davis, 1993) aurki daitezke animalien erreferentziak, *Hühnesprache* ‘oilo-hizkuntza’ erabiltzen baita era honetako hizketa jakin bat izendatzeko. Alemanez, bestelako objektuen izendapenak ere erabili izan dira animaliez gain, esaterako *Löffelsprache* edo ‘goilare-hizkera’ eta *Erbsensprache* ‘ilar-hizkera’ (Davis, 1993). *Räubersprache*¹ edo ‘lapurren hizkera’ izendapena ere erabili izan da.

Euskaraz ere erabili izan dira animalien erreferentziak era honetako hizkerak aipatzerakoan, adibidez *ahuntz-erdara* eta *ahuntz-euskara* edo *zapo-erdara* eta *zapo-euskara*. Batez ere haurrek eta gaztetxoek erabiltzen dituzte mota horretako hizkerak, inguruko haurrek eta gaztetxoek uler ez dituzten. Baina ez dituzte gaztetxoek bakarrik erabiltzen, helduek ere erabiltzen baitituzte, hizketa hori ezagutzen ez dutenek uler ez dituzten. Lan honetan gaztetxoek zein helduen testigantzak jaso dira.

Munduko leku ugarian jaso dira halako hizkerak, Hombertek (1973) aipatu bezala. Kode bera, edo antzeko bat, erabiltzen duten mintzamoldeak elkarren artean batere loturarik ez duten leku eta hizkuntza askotan jaso izan dira. Munduan zeharreko hizkuntza zenbaitetan ager daitezkeen hizkuntza-jolasak nolakoak diren ikusteko, lan gomendagarria da Alidourena (1997, 5.-7. or.). Urrutira joan gabe, gaztelaraz *jerigonza* izenekoa, zein frantsesez *verlan* izendatutakoa ere, talde honetan sartzen dira. Horregatik, euskaraz ere horrelako hizketak izateak ez gaitu harritu behar.

Forma berriak sortzerakoan hizkuntzaren egitura ohikoa aldatzeak hizkuntzaren egituratze eta arauet informazioa ematen duenez, batez ere, fonologiaren teoriaren aldetik interesgarria da era honetako hizkerak aztertzea, alderdi fonologikoa delako gehien aldatzen dena. Silaba-egituraren inguruko alderdi teorikoak lantzeko erabili izan dira nabarmenki, silaba-unitatetzat hartzen dituzten hizkuntza-jolasak ugariak direlako munduan zehar. Baina, horretaz gain, fonologiazko beste alderdi batzuei buruzko informazioa aberasteko ere baliagarri dira hizketa-molde hauek, esaterako diptongoen jokamoldeari buruz jakiteko, oinarritzko formara hurbilketa egiteko, eta abarrerako (Botne & Davis, 2000, 319. or.).

Esan beharrik ez dago era honetako hizketak sortzeko hiltunak berariazko ahalegina egin behar duela arian-arian, arreta piztua behar du izan hizketa bat-batean sortu eta ulertu ahal izateko. Era berean, entzuleak ere adi egon behar du unean bertan sortutako hizkera entzun eta interpretatu ahal izateko. Hurrengo atalean hizkuntza-jolasek konplexutasun-maila desberdina dutela ikusi ahal izango da.

1 Astrid Lindgren idazlearen nobela batzuetan agertzen den hizkera, Davisen arabera (1993), idazleak berak sortutakoa da.

2.2 Hizkuntza-jolas motak

Hizkuntza-jolasak aztertu dituzten autoreek saiakerak egin dituzte munduan zehar sortzen diren hizketa-motak sailkatzeko. Ezaguna da Bagemihl (1995) autoreak egin-dako sailkapena, zeinetan esaten baita hizketa sekretuak sortzeko dauden molde nagusiak ondokoak direla:

- infixatze / afixatzea²: tigrinya³ hizkuntzan gertatzen den -gB-⁴ infixatzea, esaterako *bitsa* > *bigitsaga* ‘horia’ egitea;
- eredu jakin bat txertatzea (hizkuntzatik hizkuntzara alda daitekeena): amhare-raz⁵, esaterako, -Kay(K)(K)KK- eredua txertatuta sortzen diren formak, adibidez, *bet* > *baytet* ‘etxea’ egitea;
- hotsak alderantziz jartzea: tagalog⁶ *puti* > *itup* ‘zuria’ bihurtzea;
- hotsak aldatzea: guna⁷ hizkuntzan, esaterako, bokal guztiak *i* bihurtzen dira *nuka* > *niki* ‘izena’ edo *pe* > *pi* ‘zu’.

Sailkapen berriagoa da Botnek eta Davisek (2000, 320. or.) proposatzen dutena. Mundu osoko hizkuntza-jolasen katalogo zabala eskaintzen dute autoreok beraien lanean. Goian aipatutako sailkapenetik bereizten da, txertatze moten arteko bereizketak proposatzen dituztelako. Aurretik egindako ikerketetatik ateratzen duten ondorioa da hizkuntza-jolasetan eragiketa ohikoenak direla silaben lekualdatze jolasak (*syllable transposition games*) eta txertatze jolasak (*insertion games*). Azken mota horretakoen inguruan dihardute bereziki beraien artikuluan. Silaben lekualdatzea moldean silabak lekuz aldatzen dira, eta lekualdaketa era batera baino gehiagotara gerta daiteke. Adibidez, Botnek eta Davisek (2000) jasotako Conklinen (1956) adibideetan tagalog hizkuntza-jolas batean lehenengo eta azken silabek lekua elkartrukatzen dute: esaterako, *kapatid* > *tidpaka* ‘anaia edo arreba edo ahizpa’ bihurtuz.

Txertatze jolasetan bereizketa berria proposatzen dute, txertaketa erako jolasak eta inposizio erako jolasak bereiziz. Txertaketa erakoetan fonema sekuentzia edo bilkura berbera txertatzen da beti gune jakin batean, silaba baten muga edo hitza mugatzat harturik. Atalaren hasieran aipatu dugun Bagemihlen sailkapeneko infixatze/afixatze taldearekin bat etorriko litzateke. Ugariak dira munduan zehar era horretako hizketak. Ondoren aurkezten diren adibideak Botne eta Davis (2000, 321. or.) autoreen lanetik

2 Terminologiari dagokionez, aipatzen diren autoreek erabilitakoa gorde dugu.

3 Eritrean eta Etiopian dagoen Tigray eskualdeko hizkuntza semitikoa da.

4 Bk bokala adierazten du, eta Kk kontsonantea.

5 Etiopia ipar-erdialdeko hizkuntza semitikoa da.

6 Filipinetan hitz egiten den hizkuntza da.

7 Panaman eta Kolonbian hitz egiten da.

hartutakoak dira. (1) adibidean ikus daitekeenez, hitz bakoitzari *za-* aurrizkia erantsiz osatzen da hizkuntza-jolasa:

(1) Libanoko arabiera (Pound, 1963) *za- kitá:b → zà-kitá:b* 'liburu'

(2) adibidean ikus daiteke hausa hizkuntza oinarri hartuta osatzen den hizkuntza-jolasean *da-* aurrizkia eransten dela silaba bakoitzaren hasieran. Malayalam hizkuntzako (3) adibidean ere *pa-* aurrizkia eransten da silaba bakoitzaren hasieran:

(2) Hausa (Alidou, 1997) *da- tsíntsiyáa → dà-tsín-dà-tsíi-dà-yáa* 'erratza'
(3) Malayalam (Mohan, 1982) *pa- kañcan → pa-ka-pa- ñcan* 'izen bat'

Modu berean, silaba edo hitz bakoitzari atzizkiak txertatuz ere sortzen dira hizkuntza-jolasak. (4) adibidean ikus daiteke finlandieraz *-kontti* atzizkia eransten zaiola hitz bakoitzari hizkuntza-jolasa osatzeko:

(4) Finlandiera (Pound, 1963) *-kontti mika sinun nimesi on →
mika-kontti sinun-kontti nimesi-kontti on-kontti*
'Zein da zure izena?'

Ondoren datozen (5) eta (6) adibideetan, aldiz, *-bi* atzizkia alemanez eta *-pB* atzizkia Ekuadorko gaztelaniaz dira silaba bakoitzari eransten zaizkionak:

(5) Alemana (Pound, 1963) *-bi knabe → kná-bi-bé-bi* 'mutil'
(6) Ekuadorko gaztelania (Pound, 1963) *-pB la casa es bonita →
lá-pa cá-pa-sá-pa és-pe bó-po-ní-pi-tá-pa*
'etxea polita da'

Ikusten denez, afixatze kasu gehienetan KB bilkura finkoa eransten da silaba hasieran, amaieran edo silaba guztietan, (2)-n edo (5)-en esaterako. Aldiz, (6) adibidean ikusten da txertatutako silabako bokala aldatu egiten dela: oinarritzko hitzeko silabako bokal bera errepikatzen da.

Orain arteko txertaketetan oinarritzko hitzaren silaba-egiturak zein hitza bera (finlandieraren kasuan) bere horretan gorde dira, silaba zein hitza unitate gisa gorde dira.

Aurrizkitze eta atzizkitze metodoak erabiltzen dituzten hainbat kasu aurkezten ditu Storchek (2017) bere lanean, eta bi moldeen artean ugariena atzizkitzea dela gehitzen du, horretarako egon daitezkeen arrazoiak ematearekin batera:

From a bird's-eye view, suffixing seems to be the most common strategy involving various types of suffixes. Borowsky (2010, 368. or.) provides a possible explanation for this by observing that 'normal lexical retrieval is «left to right», so that in right-affixing (i.e. suffixing) languages the listener will relatively quickly recognize the disguised word in question, and speech flow will be more likely (Storch, 2017, 293. or.).

Ondoko adibideetan txertaketa silaba egituraren barnean gertatzen dela ikusiko dugu, modurik ohikoena ekinaren ondoko txertaketa izanik. (7a) adibidean hitzaren lehenengo silabaren egitura aldatu egiten da eta (7b)-n hitzaren azken silabarena. (8)-ko adibideetan silaba guztietan aldarazten da hasierako hitzaren silaba-egitura.

- (7) a. Tagalo (Conklin, 1956):

-um-

tiná:pay → *t-um-í:napáy* 'ogi'
- b. Indonesiera (Pound, 1963):

-ark-

kasakóla → *kasakol-árk-a* 'eskola'
- (8) a. Txinera (Yip, 1982):

-ayk-

pey → *p-ayk-ey* 'iparra'
- b. Ingelesa (Pound, 1963):

-ælf-

notebook → *n-ælf-oʷtb-ælf-uk* 'kaier'
- c. Tamajaq (Alidou, 1997):

-əlw-

əfus → *əlw-əf-əlw-us* 'esku'

Txertatze modutzat hartzen dute, era berean, silaba gunearen ondotik kontsonantea gehitzea. Kontsonantearekin batera jatorrizko silabaren bokala ere gehitzen da, eta koda baldin badago ere bai, zenbait kasutan. Hona hemen adibideak:

- (9) a. Guna (Sherzer, 1982):

-r-

tanikki → *ta-r-ani-r-ikki-r-i* 'bera badator'
- pp-

merki → *me-pp-erki-pp-i* 'ipar amerikar'
- b. Fula (Alidou, 1997):

-b-

taylalt → *ta-b-ayla-b-alt* 'ginear oilo'
- c. Hausa (Alidou, 1997):

-b-

ʔalzúma → *á-b-alzú-b-umá* 'pertsona izen'
- d. Kekchi (Campbell, 1974):

-p-

k'oxob'a:nk → *k'o-p-oxo-p-ob'a-p-a:nk* 'hasi'
- e. Gaztelera (Davis, 1993):

-f-

grande → *gra-f-ande-f-e* 'handi'

Euskaraz aurkeztu izan diren hizkuntza-jolasetan eta lan honetarako egindako grabaketetatik jasotako eredueta ere (*apaepe*) molde honetakoa litzateke, aurrerago zehatzago ikusiko dugun moduan (ik. 4. atala).

Era horretako gertakariak jaso eta landu dituzten beste autore zenbaitek esan izan dute kontsonante baten txertatzea eta aurreko silabako bokalaren kopia gertatu dela, baina Botnek eta Davisek (2000) hizkuntza-jolasen sailkapenean leku beregaina ematen diete era horretara sortutako hizketei. Storchek dioen bezala, «the defining criterion here is that the manipulation is based not on insertions within or outside the syllable, but on the imposition of a new syllabic pattern» (Storch, 2017, 294. or.). Botnek eta Davisek azaltzen dute aurretik egindako azterketa formaletatik (Bagemihl, esaterako) urrundu egiten dela, ez delako silaba edo eredu jakin baten txertaketaren modukoa. Silaba unitate fonologikoa bi demisilabatan banatzen dute:

The first demisyllable comprises the initial consonant(s) plus the vocalic peak, while the second demisyllable comprises the vocalic peak plus any syllable final consonant(s). The first demisyllable reflects the transition from the beginning of the syllable into the vowel steady state; the second demisyllable reflects the transition out of the steady state vowel. Thus, in a C_0VC_0 syllable, the first demisyllable consists of C_0V , the second of VC_0 . Hence, demisyllables constitute abutting parts of a syllable in which, crucially, the vocalic peak belongs to both parts (Botne & Davis, 2000, 327. or.).

Txertaketa demisilaben tartean gertatzen dela diote. Hala ere, garbi utzi nahi dute demisilaba ez dutela unitate fonologikotzat hartzen, silaba ez bezala (Botne & Davis, 2000, 327. or.). Ikusmolde horren arabera, silaba osatzen duten bi demisilaben mugan kontsonantea txertatzen da. Ohartarazten dute autoreek egindako galdeketa informalean oinarrituta, txertatutako kontsonantea ezpainkaria izan ohi dela, hizkuntza-jolasak sortzeko baliabide hori erabiltzen denean. Goian aipatutako hizkuntzez gain, alemanez, hebraieraz, hungarieraz, italieraz eta koreeraz ere aurki daitezke era horretako hizkuntza-jolasak. Arrazoibide artikulatarioz janzten dute argudiamoldea:

If a consonant articulation is imposed in the middle of a vowel, the most common articulatory gesture expected would be one that does not interfere with the vowel articulation itself. Use of a labial gesture –*b*, *p*, *v*, *f*, but not *w*– for the imposed consonant permits the tongue position for the vowel to remain nearly constant throughout the vowel gesture (Botne & Davis, 2000, 328. or.).

Interesgarria da gogoeta hori, batez ere hizkuntza desberdinek diptongoekin egin ohi dituzten moldaketen berri ematen delako. Horretarako gaztelera silaba aldiko hizkuntza eta japoniera mora aldiko hizkuntzako adibideak erabiltzen dituzte. Gune boka-likoa hartzen da demisilabaren mugatzat era honetako emaitzak lortzeko. Gaztelera *-fB-* da demisilaben artean txertatzen dena; japonieraz, aldiz, *-bB-*:

(10) Gaztelera:

- a. *grande* → *grafandefe* 'handi'
- b. *hoy* → *hofoy* 'gaur'
- c. *baile* → *bafailefe* 'dantza'
- d. *fue* → *fuefe* 'izan zen'

(11) Japonierazko *babibu* (Haraguchi, 1982; Tsujimura, 1996)

- a. *asita* → *abasibitaba* 'bihar'
- b. *hai* → *habaibi* 'bai'

Hizkuntza bakoitzaren antolamendu erritmikoaren arabera, diptongoen trataera ere desberdina da hizkuntza-jolasa egiterakoan. Euskaraz, neurri handi batean, (10)-eko gaztelera-eko ereduaren pare osatzen da, lanean aurrerago zehaztuko dugunez (ik. 4. atala).

Munduko hizkuntzetan zehar hizkuntza-jolasak modu konplexuagoetan ere osatzen dira, hemen aurkeztutako moldeak nahasiz, esaterako. Ordea, orain arte azaldutakoak aurrerago aurkeztuko diren datuak azaltzeko modukoak direlakoan, interesa duenari Botneren eta Davisen (2000) zein Storchen (2017) lanetara jotzea gomendatzen diogu.

Aipagarria da hizkuntza batean hizkuntza-jolas bat baino gehiago gertatzea ez dela batere arraroa. Gainera, zenbaitetan hizkuntza-jolas beraren aldaeratzat har daitezkeenak ere gertatzen dira. Kurabek (2021), adibidez, txertatze jolasak aurkeztzen ditu, turkieraz *seni* 'zu' izenordaina oinarritzat hartuta. Era berean, turkieraz atzekoz aurrera hitz egiteko modu bat baino gehiago ere erakusten digu:

(12) Infixatze jarraikorra turkieraz

- a. *seni* → *segenigi* 'zu'
- b. *seni* → *sebirebirnebiribir* 'zu'
- c. *seni* → *kutusekutuni* 'zu'
- d. *seni* → *senibayrım* 'zu'

(13) Atzekoz aurrerako hizkerak turkieraz

- seni* → *nise* 'zu'
- seni* → *ines* 'zu'

(12) adibidean txertatzen diren afixuak desberdinak dira eta txertatze guneak ere bai; (13) adibidean, berriz, atzekoz aurrera hitz egiteko silaba oinarritzat hartuta eta hotsak banaka oinarritzat hartuta gertatzen dira. De Araujoren eta Agostinhoren (2014) artikuluan ere aipatzen dira Brasilen eta Portugalen hitz egiten den *Língua do Pê*ren hiru txertatze aldaera. Lehenengo aldaeran txertatzen den *-pB-* elementua silaba bakoitzaren ondoren gertatzen da, baina bigarren aldaeran silaba bakoitzaren aurretik egiten da *-pB(K)-* txertatzea; hirugarren aldaera lehenengoaren antzekoa da, silaba bakoitzaren ondoren gertatzen da txertatzea, baina txertatze baldintza desberdinekin, jatorrizko silabako kontsonantea txertatzen den silabak baitarama:

(14) *Língua do Pê* 1 (Portugal eta Brasil)

- a) *ci.'da.de* → *ci.'pi.da.'pa.de.'pe* 'hiri'
- b) *fe.'liz* → *fe.'pe.liz.'piz* 'pozik'

Língua do Pê 2 (Brasil)

- a) *ci.da.de* → *pe.'ci.pe.'da.pe.'de* 'hiri'
- b) *fe.'liz* → *pe.'fe.pe.'liz* 'pozik'

Língua do Pê 3 (Brasil)

- a) *ci.da.de* → *ci.'pi.da.'pa.de.'pe* 'hiri'
- b) *fe.'liz* → *fe.'pe.li.'piz* 'pozik'

De Araujoren eta Agostinhoren (2014) artikuluan aipatzen dira, halaber, gazteleraz *jerigonza* izenez ezagutzen den hizkuntza-jolasaren hiru aldaera (aitortzen da, gainera, ez direla estilo bakarrak, badirela gehiago ere):

(15) Peruar *jerigonza*

- a. *can.'ción* → *cha.can.cha.'ción* 'kanta'
- b. *ma.'és.tro* → *cha.ma.cha.'és.cha.tro* 'maisú'
- c. *'pá.ja.ro* → *cha.'pá.cha.ja.cha.ro* 'txori'

(16) Kolonbiar *jerigonza*

- a. *can.ción* → *cam.pa.'cióm.po* 'kanta'
- b. *ma.'és.tro* → *ma.pa.'és.pe.tro.po* 'maisú'
- c. *'pá.ja.ro* → *'pá.pa.ja.pa.ro.po* 'txori'

(17) Costa Ricako *jerigonza*

- a. *can.'ción* → *ca.pan.'ció.pon* 'kanta'
- b. *ma.'és.tro* → *ma.pa.'é.pes.tro.po* 'maisú'
- c. *'pá.ja.ro* → *'pá.pa.ja.pa.ro.po* 'txori'

Lehenengo adibidean, *-cha* aurrizkia eranstean zaio silaba bakoitzari; bigarrenean, *-pB* atzizkia da silaba bakoitzari eranstean zaiona, eta hirugarrenean, aldiz, *-pB(K)* atzizkia.

3 ALDERDI FONOLOGIKOARI BEGIRA

2.1 azpiatalean esan dugunez, hizkuntzaren ohiko egitura aldatuta hizketa-forma berriak sortzeak hizkuntzaren egituratze eta arauen inguruko informazioa ematen duelako, hizkuntzalaritzatik ere aztertu izan dira hizkuntza-jolasak. Batez ere, azterketa fonologikoak izan dira landutakoak, hizkuntzaren alderdi fonologikoa baita hizkuntza-jolasak sortzean gehien ukitzen den alderdia. Beraz, teoriaren alde-tik interesgarria da era horretako hizkerak ikertzea. Esan behar da, oro har, hizkuntza-jolasak ez direla asko aztertu hizkuntzalaritzan, nahiz eta lehen azterketen aipamenak aspaldikoak diren, adibidez Vauxen (2011) lanean Sapir (1915) eta Jespersen (1922) autoreen lanak aipatzen dira. Teoria-molde nagusienetan hizkuntza-jolasak kanpo nabaritasun edo ebidentziatzat hartu izan dira, eta ez hizkuntzalaritzako azalpenen muintzat. Aldiz, egun aski onartua da hizkuntza-jolasek hizkuntzaren antolaketaren eta egituratzearen berri ematen digutela, eta beraz, hizkuntza arruntaren gisara, hizkuntzaren azterketan datu iturri esanguratsua izan daitekeela. Ondoko aipuan, esaterako, Doneganek eta Stampek (2009) hizkuntza-jolasak aipatzen dituzte besteak beste, bilakabide fonologikoak zein eremutan gertatzen diren aipatzen dutenean.

Processes also apply to the output of language games –particularly those which infix or affix an element. A simple example is the English Pig-Latin pronunciation of *me*. When the initial consonant is moved to the end of the word, and the vowel [ɛi] is suffixed, [mi] becomes [ĩmɛi], with a nasalized vowel, on account of the following nasal (Donegan & Stampe, 2009, 10. or.).

Hizkuntza batean gertatzen diren bilakabideen berri emateko iturri garrantzitsua direla ondoriozta dezakegu aiputik. Hizkuntza-jolasak aztertzearen baliogarritasunaren ideiarekin erabat lotzen da Bertinettok 2004ko lanean egindakoa; izan ere, hizkuntzetako egitura fonologikoetan dauden auziak argitzeko asmoz, bere kasuan italiarazko silabatze korapiloak argitu nahian, hizkuntza-jolasak esperimentu gisa ere erabili baitzituen (Bertinetto, 2004). Gilen (2022) azterketa ere aipagarria da, hizkuntza-jolasak darabiltzalako indonesierazko bi hizkuntzaren jokamolde erritmiko desberdinak azaltzeko.

Hizkuntza-jolasak fonologiaren esparruan askotan silaba egituraren inguruko alderdi teorikoak lantzeko erabili izan dira, silaba-unitatetzat hartzen dituzten hizketa sekretuak ugariak direlako munduan zehar. Baina horretaz gain, fonologiazko beste alderdi batzuei buruzko informazioa aberasteko ere baliagarri dira hizketa-molde horiek, esaterako diptongoen jokamoldeari buruz jakiteko, zein oinarrizko formara hurbilketa egiteko, eta abar. Ondoren, hizkuntza-jolasek fonologiaren esparruan hainbat gairi egindako ekarpenak aipatuko dira.

- Silabaren beraren izatearen eta garrantziaren inguruan zeresana ematen du. XX. mendean zehar, eta baita XXI.lean ere, silabaren beraren izateaz zalantza eta eztabaida ugari egon da, silabarik ez dagoela ere baieztatzeraino. Hizkuntza-jolasak sortzeko hitzunek erabiltzen duten unitate erritmiko ohikoena silaba izateak erakusten du silabak, hizkera arrunteko elementuak aldatuta ere, unitate erritmiko gisa duen garrantzia, silaba-unitatea bera erabiltzeaz gain, hizkuntza-jolas askotan silabaka ahoskatzen delako.

Language games provide evidence for the syllable as a linguistic unit. This is apparent from insertion games in which a sequence of phonemes is inserted at syllable boundaries and from rearrangement games in which whole syllables are moved. In order to generate words in these games speakers must be able to divide words in terms of syllables (Davis, 1993, 11. or.).

Hizkuntza-jolasen ezaugarrietako bat da unean bertan gertatzea, edozein hitz edo esaldi oinarritzat hartuta bat-batean hizkuntza-jolas bihurtzea. Doneganen eta Stamperen (1979, 135. or.) ondoko aipuak ideia hori jasotzen du: «The fact that processes operate in ongoing speech production is most clearly evidenced by their application to here-and-now, *non-lexical* outputs of secret-language rules and slips of the tongue». Hemen eta orain sortzen den hizkera izanda, silabaka gauzatzeak adierazi nahiko luke hitzunaren barnean elementu erritmiko zentrala dela silaba.

Hizkuntza-jolasetako silaba egituraren barnean, ekina, gunea eta koda bereizten direla erakutsi izan denez, silabaren egiturako elementuen izatea ere erakutsiko luke.

- Diptongoen estatusaren gainean egindako gogoeta eta saioak. Munduan zehar aztertu diren hizkuntza askotako hizkuntza-jolasetan diptongoen gaia izan da gehien aipatu denetako bat. Izan ere, hizkuntzetan diptongoek portaera desberdinak azaltzen dituzte, ondoko aipuak adierazten duen moduan: «Although different languages treat diphthongs differently, even in languages where they are treated as single units the imposition of a consonant has the apparent effect of splitting the diphthong» (Botne & Davis, 2000, 329. or.). Munduko hizkuntzetan barrena izan dezaketen trataeraz gain, hizkuntza beraren barnean ere ikusten da halakorik. Gorago (2.1 azpiatalean) azaldutako gaztelerazko kasuetan, esaterako, *baile* → *bafailefe* ‘dantza’ adibidean eta *fue* → *fuefe* ‘joan zen’ adibidean diptongoek trataera desberdina izan dute hizkuntza-jolasa sortzeko: lehenengoan, diptongoa osorik gordetzen da txertatzen den silaban; bigarreanean, aldiz, banatu egiten da. Era honetako trataera desberdinek *glide* edo irristarien inguruko azterketak eragin dituzte sarri.

Botneren eta Davisen (2000, 330. or.) lanean irakur daiteke hizkuntza bakoitzaren erritmo nahiagotasunen arabera, diptongoen trataera ere halakoa izan daitekeela. *Syllable-prominent languages* eta *mora-prominent languages* terminoak darabiltzate autoreok gaztelera eta japonierazko adibideek dituzten desberdintasunez ari direnean. Mora aldiko hizkuntzetan (kasu honetan, japoniera), silabaren pisu erritmikoa bereizi egiten denez, hizkuntza-jolasak sortzean pisu erritmikoa diptongoetan ere bereiztea espero da.

- Zenbait autorek adierazi dute hizkuntza-jolasek hitzen oinarritzko formaren gaineko informazioa ematen dutela (Sherzer, 1970 apud Botne & Davis, 2000). Hizkuntza-jolasak sortzeko hitzunak hitzen oinarritzko formak baliatzen dituztela suposatzen denez, oinarritzko formaren inguruan zalantza sor daitekeenetan, hizkuntza-jolasetan egin den eragiketak argi egingo liguke oinarritzko forma zein den zehazteko. Botne eta Davis (2000, 320. or.) autoreek gehitzen dutenez, «speakers of the same language may have different underlying representations for the same form»⁸. Eztabaidagaia zabalagoa izan daitekeen arren, ezin da ukatu informazio iturri gisa erabili daitezkeenik.
- Hizkuntza-jolasek hizkuntzaren erritmoari buruzko informazioa eman diezagukete. Esate baterako, hizkuntza-jolas berak emaitza desberdinak izan ditzake hizkuntzaz hizkuntza, edo hizkuntza bereko aldaeren artean. Adibidez, silaba bakoitzaren ondotik beste silaba bat txertatzerakoan, erritmo trokaikoa zein erritmo ianbikoa izan dezake. Bata zein bestea nahiago izateak hizkuntzaren beraren antolaketa erritmikoaren berri eman diezaguke, Gilen lanak (2022) erakusten duen moduan.
- Bagemihlek (1989) gogoeta interesgarri bat egiten du hizkuntza-jolasen prozesamenduz. Hain zuzen ere, hotsez hots atzekoz aurrera hitz egiteaz (*backwards*) ari delarik, hitzunak hizkuntza idatziaren kontzientziarik ba ote duen galdetzen du. Hizkuntza-jolas molde hori erabiltzen duten munduan zeharreko hizkuntzetan idatzizko forma badutela aipatzen du autoreak. Gertaera horrek pentsarazten du atzeraka hitz egiterakoan idatzizkoa hartzen dela abiapuntutzat. Hizkuntza-jolasek lehen aipatu dugun *hemen eta orain* ezaugarria izateak ekartzen du hitzunak oinarri *finko*, *fisiko* bati heldu nahi izatea eta helduleku hori idatzia-rekin identifikatzea. Baina Bagemihlek (1989, 485. or.) ingelesa oinarri hartuta atzeraka hitz egitearen adibideak ematen dituenean, gaineratzen du ingelesezko adibidean forma fonologikoa hartzen dela abiapuntutzat. Esaterako, ingelesezko *garage* ‘garaje’ hitza [gəɾɑʒ] ahoskatzen dena hizketa arruntean atzerakako jolasen [ʒarəg] ahoskatu zen; forma ortografikotik abiatu balitz, [e] bokalaz hasiko litzateke, eta ez da hala. Beraz, adibide honek erakutsiko luke forma fonologikoa ortografikoaren aurretik gailentzen dela hitzunaren abiapuntutzat.

Hemen ez da eman nahi izandako eztabaida fonologikoen zerrenda zehatzik, baizik eta erakutsi nahi izan da hizkuntza-jolasek azterketa fonologikoari ekarpena egin diezaioketela. Ildo horretatik jarraituz, azterketa hau egiterakoan sortutako zalantza azaleratu nahi genuke, aurrera begira letozkeen ikerketek kontuan hartzeko aukera gogoan. Hizkuntza-jolasek hizkuntza guztietan gertagarritasun bera ote duten zalantza sortu zaigu, edo hizkuntza jakin batzuetan gehiago gertatzen ote diren. Hizkuntza-jolasek, batez ere erritmoarekin duten loturaren haritik, egitura silabiko aski sinplea izan ohi duten hizkuntza silabikoetan errazago gerta daitezkeela suposa daiteke. Azentu aldiko hizkuntzetan, errima konplexuagoak izan ohi dituztenetan, gertagarritasun

8 Baieztapen interesgarria da euskalkien arabera oinarritzko forma desberdina izan daitekeela defenda daitekeelako, baita hitzun berak oinarritzko forma bat baino gehiago izatea ere, hizkera-moldearen arabera.

bera edo antzekoa ote duten galdera sortu zaigu. Lan honetan emandako adibideetan, azentu aldiko hizkuntzat hartzen diren ingelesezko zein alemanezko adibideak eman ditugu 2.2 azpiatalean; beraz, ezin uka daiteke azentu aldiko hizkuntzetan hizkuntza-jolasak gertatzen direla. Aldiz, interesgarria litzateke ikustea gertatzeko erraztasun edo maiztasun berdina ote duten.

4 EUSKARAZKO HIZKUNTZA-JOLASAK

2.1 azpiatalean aipatu dugu elkarren artean ezer ikustekorik ez duten leku eta hizkuntza askotan jaso izan direla hizkuntza-jolasak. Euskarazko hizkuntza-jolasen gainean ez dago lan askorik argitaratuta, eta besteren artean horregatik erabaki dugu gaiari heltzea. Atal honetatik aurrera, euskaraz dauden hizkuntza-jolasei begiratuko diegu. Hasteko, 2.2 azpiatalean aipatutako hizkuntza-jolasen sailkapenari begiratuta topatu ditugun zenbait hizkuntza-jolasen aipamena egingo dugu. Ondoren, *apaepe* izendaturakoari helduko diogu zehatzago.

Bagemihlen 1995eko sailkapena aurkezterakoan (§ 2) aipatu ditugun bi molderen berri eman behar dugu euskaraz. Infixatze eta txertatze moldeez gain⁹, hotsak alderantziz jartzea eta hotsak aldatzea ere aipatu ditugu¹⁰. Euskaraz bi moldeak gertatzen dira eta horien berri emango dugu jarraian.

4.1 Atzekoz aurrera hizketan euskaraz¹¹

Sarean aurkitutako bideo batean, Ibon Gaztañazpi telebista aurkezlea atzekoz aurrera hizketan ikusi genuen¹². Bi moldetara egiten zuen: silabaz silaba eta hotsez hots. Esan nahi baita, hitz bat atzekoz aurrera silabaka ahoskatzen dela, azken silaba lehen posizioan jarritz eta azkenaurreko silaba bigarren posizioan, adibidez *o.gi.a* > *a.gi.o* eginez. Hotsez hots egiten denean, azken hotsa lehen posizioan egiten da, azkenaurreko hotsa bigarren posizioan eta era horretan osatuko litzateke hitza; adibidez, lehen aipatutako *ogia* hitza *aigo* esanez. Ohiko hizkeran hitza ezkerretik eskuinerantz osatzen badugu, alderantzizkako moldean eskuinetik ezkerretantz osatzen da, silabaz silaba zein hotsez hots. Era horretakoak da turkierazko (13) adibide-sorta.

Sarean aurkitutako bideoa ikusi ondoren, Ibon Gaztañazpirekin berarekin harremanetan jarri ginen. Hizkuntza-jolasa txikitatik praktikatu izan duela adierazi zigun; bakarrik, bere kasa ikasi omen zuen, eta, gaitasuna zuela ohartzean, lantzen hasi omen zen. Egun erraztasun handiz egiten du, abiadura biziz hitza alderantziz emateko gai da, bai silabaka, bai hotsez hots, bai euskaraz, bai gazteleraz. Hizkuntza-jolasa egiteko hitz laburragoekin hobeki moldatzen dela aitortu zuen, eta bospasei silabako

⁹ *Apaepe* txertatze moldean egokituko litzateke sailkapen horretan.

¹⁰ Botneren eta Davisen sailkapenean ez dira azken bi horiek agertzen.

¹¹ Ingelesez, *reversing languages*; horien artean dago *speaking backwards* edo atzekoz aurrera hitz egitea.

¹² EITBko *Zuek hor* programan 2015eko irailaren 23an.

aipatutako Ibon Gaztañazpirekin izandako elkarrizketan, hizkuntza-jolas hau etxean seme-alabekin erabili izan duela aipatu du, jolas egiteko helburuarekin. Erabili ahala erraztasuna handitzen joan ohi denez, aitortzen du erraztasun handia duela hizkuntza-jolas hori ekoizteko. Aurreko atalean bezala, ulertzeak lan gehiago ematen diola gehitzen du ekoizteak baino.

Hizkuntza-jolas hori dokumentatu ahal izan dugu telebistako iragarki batean ere: Euskaltel telefono konpainiak duela bizpahiru urte egindako *Infinity* kanpainako iragarkian hizkuntza jolas hau erabili zen. Iragarkian, Agirretxe eta Aduriz futbolari profesional ohiak jatetxe batean zeuden eta zerbitzaria hurbildu zitzaion zer nahi zuten galdezka. Hiruren arteko elkarrizketan, hitz guztietako bokalak aldatu egin zituzten, kasu honetan *i* bokala jarritz, transkripzioan ikus daitekeenez:

- (22) Agirretxe: *Igirritxi* ('Agirretxe')
 Aduriz: *ti Idiriz* ('ta Aduriz')
 Zerbitzaria: *Primirin, histiki girniki pipirrik* ('Primeran, hasteko Gernikako piperrak')
 Agirretxe: *Txiliti* ('Txuleta')
 Aduriz: *Pipirrikin?* ('Piperrekin?')
 Agirretxe: *Ti pititikin* ('Ta patatekin')
 Aduriz: *Pipirrikin ti pititikin?* ('Piperrekin ta patatekin?')
 Agirretxe: *Biik* ('Biak')
 Aduriz: *Bingi* ('Benga')

3.1 eta 3.2 azpiataletan aurkeztutako bi hizkuntza-jolasen gaineko informazioa bilatzeko ez dugu berariazko bilketa-lana egin, sarean egindako bilaketaren eta elkarrizketaren emaitza da. Ondotik datorren atala osatzeko, aldiz, alor lana egin dugu. *Apaepe* hizkuntza-jolasaren gainean arituko gara hurrengo atalean.

4.3 Euskarazko «apaepe» hizkuntza-jolasa

Azken hamarkadetako ikerlanetan aipamen gutxi izan badute ere, zenbait euskalarik aspaldi adierazi zuten euskaldunen hizkuntza-ohituretan sekretuzko mintzamolde berezi batzuk bazeudela. Lehenbizikoa, edo lehenbizikoetako bat behintzat bai, Jean Barbier izan zen. *Antxintxarburuko buhamiak* liburuxkan (1895/1971) kontatu zuen nola, hogeigarren mendearen hasieran Garazi aldeko buhameek beraien berezko mintzaira galdua zuten, nahiz, hala ere, bazerabilten beren artean euskal mintzamolde kodetu bat euskaldun arrotzen aurrean solas egiteko, haiek haien hitzak uler ez zitzaizten. «Apa-epeka solas egitea»¹⁵ esan zion Barbierrek mintzamolde horri, eta adibide bat ere eman zuen:

- (23) Xahar okitu batzuek salbu, Buhamiek ez dute orai mintzaire hori erabiltzen biziki guti baizik. Eskuaraz gu bezalatsu ari dira. Zer dioten arrotzek ez konprenitzeko, apa-epeka solas egiten dute elgarren artean.
 Konparazione, gisa hortan mintzatuz huna zer bilaka litaken.

15 *Hipa-hapako mintzoa* ere izendatzen du liburuko pasarte batean (1971, 9. or.).

Gernikako arbola

Da bendikatua:

Ge - per / ni - pi / ka - pa / ko - po / a - par / bo - po / la - pa

da - pa / be - pen / di - pi / tu - pu / a - pa. [ka' silaba itzuri zitzaion]

Funtsean ez da mirakuluzkoa, hizkuntza hori; eta nor nahi aise jartzen zako: haurrean guhaurek askotan baliatu dugu, ustez-eta arras abilak ginen.

Aitortuko dugu buhamiek utzixea dutela hipi-hapako mintzoa. Ohartu ditazke xila-errexak zela eta alferretan (ez erraiteko beren kaltetan) berexten zirela beste jendeen ganik (Barbier, 1971, 8.-9. or.).

Jean Barbierren ondotik, Azkue izan zen hurrena hizkera-mota hori aipatzen, *Euskal-erriaren Yakintza* obran. Adierazi zuen bai Iparraldean (Zuberoan) eta bai Hegoaldean (gazteleran oinarritua), izenak aldatuta eta hainbat lekutan erabiltzen zela. *Euskal-erriaren Yakintza*ko lehen liburukian sorginei buruzko atal batean aipatu zuen Azkuek Iparraldean *sorgin* edo *belagileen solasa* esaten zitzaiola, eta Hegoaldean, berriz, *erdaran* oinarritua zela:

(24) *Sorgin-solasa* du izena olako izketak: «eperrapan zapadapan, zeper dupun or?»

[Erran zadan: zer dun hor?]

A. Ainharben *belagileen solasa*.

B. Bizkayan *auntz-erdera*.

C. Arronan [Gipuzkoan], *sapo-erdera* (Azkue, 1935/1989, 387. or.).

Hizkera kodetu hori duela zenbait hamarkada Euskal Herriko hainbat alderditan erabiltzen zela ikus dezakegu Azkueren aipamenean. Geroke lekukotasun batzuk ere badaude. Horrela, Elexpuruk, Bergara aldeko hiztegian, gazteleran oinarritutako horrelako hizkera aipatu zuen, eta *Orotariko Euskal Hiztegiak* (OEH):

(25) OEH lekukotasuna (*zapo* sarrera; *zapo-erdera* azpisarrera):

b) (*zapo-erdera* V-gip; *sapo-erdera* G-azp). Ref.: A EY I 387; Elexp Berg. «*Sorgin-solasa* du izena olako izketak: *Eperrapan, zapadapan, zeper dupun opor* (erran zadan zer dun or?) [...] Bizkaian *auntz-erdera*, Arronan *sapo-erdera*» A Y I 387. «Neska-mutikoez erabili ohi zuten kodigo sekretua, silaba bakoitzaren atzean -pa jarritz, adibidez: *va-pa mos-pa a-pa ro-pa bar-pa man-pa za-pa nas-pa*» Elexp Berg. «*Ingurukon batek ez entenditzia nai giñuanian zapo-erderan eitte giñuan*» Ib.

Ohargarria da Bergarako *zapo-erderaren* kodea ez dela Barbierrek deskribatu zuena, ezta (26b)-n erakusten den Lekeitioko zenbait euskaldunek duela 40 bat urte oraindik erabiltzen zutena bezalakoa ere. Bergarako hizkera kodetuan '*pa*' KB silaba segmentu bikote osoa da bikoiztua eta artizki gisa sartua silaba bakoitzaren ondotik¹⁶, *vamos* → *vapa mospa* 'goazen' adibidean ikusten denez.

16 Kodako kontsonanteari dagokionez, jatorrian dagoen silaban uzten du, adibidez, *robar* → *ropa barpa* 'lapurtu' bihurtzen du, ez dugu *ropa bapar*.

Euskal Herriko Hizkuntz Atlasa (EHHA, 1999) antologiarako bildutako laginek ez zuten zertan gai jakin bati buruzkoak izan; halere, 145 laginetan baziren bi zuzenean hizkuntza-jolasa aipatzen zutenak: bata, Pagolan (26a) bildua, eta bestea, Lekeition (26b):

- (26a) Pagolako lagina (Zuberoa, Pagola, 166. or.; lekukoa: Kattalin Caset; inkestagilea: X. Videgain; inkesta data: 1987ko martxoa):
 Buhameak eta buhame-lenguaia: kaphattaphaliphin
 Buhamea zer den azaldu behar zuelarik, lekukoak beste mintzatzeko manera baten berri eman zuen, hizkera horri 'buhame-lenguaia' izena ematen baitio, nahiz nornahik erabil lezakeen, naski buhame izan gabe.
 INK. Zurekin eskuaraz ari ziren?
 LEK.: Bena etzizien beste mintzajiaik ez...
 INK.: Ah!
 LEK.: Eskuara ba.
 INK.: Ez ziren españolak?
 LEK.: Ah ez etziren españolak, bistan dena, etzütützün españolak, üskaldünak zütützün buhamiak bena ttokesa, hoik oro buhamiak, oro buhamiak.
 INK.: Ttokesa? zer da ttokesa?
 LEK.: Tokesa e bai, buhamesa, beitharte, larria.
 INK.: Izena zen, ttokesa?
 LEK.: Buhamia.
 INK.: Uhartekoa ere?
 LEK.: Uharteko zün, hua Xibalterri hortan bazün buhame saldo bat hor.
 INK.: Uste nuen mintzatzeko maneran bazutela zerbait aparte?
 LEK.: Ez heben ez, hor, heben ez, gio buhame lenguaia bon, bazün, bon: bena denek emaiten zizien hua: dididing dadadang etzekeden etzakadan, bada-kizü.
 INK.: Nola da hori?
 LEK.: Bon, e pe ahantzia dit, buhame lenguaia, gühauk ezkünielaik nahi bestek kunprenitzia eta erraiten genizün; epez tipi edo: epez tipi pha rü pü, oai bethi p eta oro hitzak oro p zertzen.
 INK.: Nola erranen düzü?
 LEK.: Bon emazü frase bat.
 INK.: Bihar joan behar niz.
 LEK.: Bi phi a phar apha jun hua pha ni phiz be phe a phar ni phit bi phi a phar; bi phi a phar: bihar.
 INK.: Eta nola erranen duzu ene izena duzu: zure izena eman dezagun, nola erranen duzu?
 LEK.: Ka pha tta pha li phi phin.
 INK.: Je m'appelle comme ça, hola deitzen nüzü erranen duzu berdin?
 LEK.: Ka pha tta ka tta tta pha li phi li in.
 INK.: Beti p batekin.
 LEK.: Gio bazütützün biziki trebe zirenak eta behar zünin beharria atxiki nula mintzo zen eta hola, hola ai gintzün handitü ondun, badakizü, buhame lenguaia deitzen genizün hoi.

(26b) Lekeitioko lagina (Bizkaia, Lekeitio, 41. or.; lekukoa: Jesus Erkiaga; inkestagilea: Isaak Atutxa, inkesta data: 1988ko urria).
«Epes topot napai» edo sasi-euskara
LEK.: Guk erabiltzen gendun erdaldunek es entendiduteko lein, «seper napai dupu-supu?» «Epes topot napai». Ori «estot nai» esateko. Beti ipintxen txau, e, pe eo pa eo, en fin, orretara itxe untxeun laguntartien. Baya edarto eitxen gendun berba, e. Erdaldun tartin da, es entienduteko geuri, onek e apurtxu bet euskeri ikasitxe eua-sanak eta eurak e seoser, berbarik eitxen bagendun ba, orixe berbeti ori.
INK.: Eta selan eiten senduen?
LEK.: «Bapai». «Bai» esateko, «bapai». «Epes topot napai», «estot nai». E, orrek... ori berbeti ori, baña ya egun gustien igual, e, ibiltxe giñen komertziñlen lagun tartien da, ba (???) sasi euskerie esate utzeun guk orreri.
(Euskaltzaindia, 1999)

Lekeitioko lekukotasun hori, Azkuek emandako Hegoaldeko adibideetan ez bezala, euskararen oinarritua da eta $pB(K)$ silaba txertatuz egiten da, duela mende bat Garazi aldeko buhameek erabiltzen zuten kodean bezala.

4.3.1 Lekukoak eta corpusa

Artikuluaren hasieran aipatu dugunez, lanaren helburuetako bat da euskarazko hizkuntza-jolasen bilketa-lana eta deskribapena egitea, ondoren aztertu ahal izateko. Bibliografiaren arabera, euskal eremu aski zabalean gerta zitekeela susmatuagatik, lekukoak non aurkitu jakitea ez da erraza, gune geografiko jakin batean dakiten hiztunak egon direla susmatu arren ez delako bermatzen gero lekukoak topatuko direnik. Izan ere, hizkuntza arruntekin gertatzen den kontrara, ez da erabat ziurra hizkuntza-jolasak belaunaldi batetik bestera igaroko direnik, nahiz eta askotan gertatzen den, gure zenbait lekukok adierazi diguten moduan. Bilaketa-lan hori errazteko, euskarazko egunkari batean iragarkia jartzea deliberatu zen: *Iparraldeko hitza* egunkarian 2021eko irailean (Etxeleku, 2021); erantzun asko jaso zenez, bai Iparraldetik, bai Hegoaldetik, apaepeka grabatzeko prestutasuna agertu zuten hainbat berriemaileri grabazioak egin genizkien. Grabazioen xehetasunak datoz ondoren:

1. taula. Inkestaguneak, lekukoak eta bildutako corpusa

Grabazio lekua eta eguna	Lekukoak	Corpusa
Altzai 2021-09-19	H1 eta H2	24 hitz solte; 170 hitz elkarrizketan
Altzai 2023-05-17	H1 eta H2	70 hitz (hitz solteak gehienak; esaldiren bat ere bai)
Oiartzun 2021-12-06	H3	60 hitz; ekitaldi baten kontaketa egiten du
Izturitze 1 2022-08-29	H4 eta H5	66 hitz (hitz solteak gehienak; esaldiak ere bai)
Izturitze 2 2022-08-29	H6 eta H7	70 hitz (hitz solteak gehienak; esaldiak ere bai)
Izturitze 3 2022-08-29	H8	18 hitz solte

Grabazioak lekukoek etxean edo herriko lokal batean egin ziren, eta audio grabagailuarekin eta bideoz jaso ziren.

Datuak lortzeko hainbat molde erabili ziren; esaterako, frantsesez hitza esan ondoren itzulpenak emateko galdegin zitzaien (Altzain eta Izturitzen), edo irudiak erakutsi eta irudietan ikusitakoa apaepka emateko eskatu zitzaien (Izturitzen). Oro har hitz solteak galdegin bazitzaizkien ere, esaldi laburrak ere ekoitzi zituzten (frantsesez emandakoa euskaratuz, esaterako, bai Altzaiko hiztunek, bai Izturitzekoek). Altzaiko hiztunek (anaiak dira) elkarren artean elkarriketa askea ere izan zuten eta Oiartzungoak gertaera baten deskribapena egin zuen. Azken bi kasuetan lekukoek apaepka hizketa jarrio oparoaren jabe zirela erakutsi zuten.

Hona hemen berriemaileen zenbait adibide:

- (27) *bihar* → *bipi hapar* (Altzai)
ekhia → *epe khipi apa* (Altzai)
euskeraz → *epeus kepe rapaz* (Izturitze)
nun hiz kolegioan? → *nupun ipiz kopo lepe gipi opo apan?* (Izturitze)
ni ere → *nipi epe repe* (Izturitze)
ostiralean → *opos tipi rapa lepe apan* (Oiartzun)
euskeraren taldea ttur ttur → *epe upus kepe rapa repen tapal depe apa ttupur ttupur* (Oiartzun)

4.3.2 Apaepe eredua

Jaso ditugun euskarazko grabazio guztietan eta bibliografian bildutako datuetan ere, ondoko eredua jarraitzen da euskaraz:

2. taula. Euskarazko apaepe sortzeko eredua

Hizketa naturaleko jatorrizko silaba egitura > apaepka sortutako silaba egitura	Adibideak
$B_1 \rightarrow B_1PB_1$	$a \rightarrow apa$; $ai \rightarrow apai$
$K_1B_2 \rightarrow K_1B_2PB_2$	$ke \rightarrow kepe$; $lotu \rightarrow lopo tupu$
$B_1K_2 \rightarrow B_1PB_1K_2$	$ur \rightarrow upur$
$B_1K_2K_3 \rightarrow B_1PB_1K_2K_3$	$artz \rightarrow apartz$
$K_1B_2K_3 \rightarrow K_1B_2PB_2K_3$	$zor \rightarrow zopor$; $azkar \rightarrow apaz kapar$
$K_1K_2B_3K_4 \rightarrow K_1K_2B_3PB_3K_4$	$tren \rightarrow trepen$
$K_1B_2K_3K_4 \rightarrow K_1B_2PB_2K_3K_4$	$beltz \rightarrow bepeltz$

Silabak ekina badu, esan nahi baita silaba-gunearen ezkerretara dagoen kontsonantea badu, hizketa naturaleko jatorrizko silaban gordetzen da silaba-gunearekin batera eta ez da errepikatzen txertatzen den silaban (esaterako, ikus 2. taulako *ke* → *kepe* adibideko lehen kontsonantea eta *zor* → *zopor* adibideko lehen kontsonantea). Silaba bakoitzeko gunea, bokal bakarra denean, gorde egiten da jatorrizko silaban eta errepikatu egiten da txertatzen den silaban, esaterako *lotu* → *lopo tupu* adibideko lehen eta bigarren bokala. Diptongoa denean, silabagileari jatorrizko silaban eusten zaio eta diptongoa txertatzen den silaban egiten da, *bai* → *bapai* adibidean ikus daitekeenez.

Silabak koda badu, txertatzen den silaban joan ohi da, eta ez hizketa naturaleko jatorrizko silaban (ikus taulako *zor* → *zopor* adibideko azken kontsonantea).

Apaepe hizkeran aipagarriena da silaba-gunean diptongoa dagoenean gertatzen dena: diptongoaren irristaria txertatzen den silabarako uzten da, originalean diptongoaren gune bokalikoa utzita. Adibidez, *bai* → *bapai* egin dute euskarazko hitzun gehienek. Hala ere, bi hitzunek diptongoak bi silaba osatzen dituzten bi bokal beregain balira bezala hartu dituzte eta era honetan sortu dute: *bai* → *bapa ipi* ‘bai’ eta *hamairu* → *hapa mapa ipi rupu* ‘hamairu’. Esan bezala, bi hitzunek bi adibidetan erabili dute bide hori, eta, oraingoz, pentsa dezakegu hautu pertsonala izan daitekeela.

Masayukiren (2021, 23. or.) lanean esaten da silaba-gunearen aurretik *-Bp-* gehitzen dela: «The crypteme [txertatzen den elementua izendatzeko erabiltzen duen terminoa] in Basque ludlings can be described as either <Vp> (before every nucleus) or <pV> (before every first vowel)». Deskribapenerako hemen aurkeztu den ereduak zein Masayukik (2021) aurkeztu duenak balio lezake, baina ondoren azalduko den moduan, hizketa-solasaren prozesamendurako argudiatuko denarekin koherenteagoa delako, lan honetan silaba-gunearen ondoren *-pB(K)-* txertatzen dela esango dugu. Hizketaren prozesamenduaren aldetik, silaba-gunearen aurretik silaba-gunearen kopia den bokala ezartzea (Masayukik defendatzen duen eredu) baino eragiketa errazagoa eta logikoagoa iruditzen zaigu silaba-gunea ahoskatu ondoren errepikatzea (hemen defendatzen duguna). Iruditzen zaigu ideia hori bat datorrela hizkuntza arrunteko hotsen prozesamendurekin, hau da, hotsak bata bestearen atzetik joatearekin. Kopiatzen den elementua (bokala) behin ahoskatu ondoren txertatzeko dagoen elementua prozesatzeko aukera ematen du. Bestela buru-eragiketa handiagoa eskatuko luke, kopiatu behar den bokala ahoskatu aurretik kopiatu eta txertatu behar den elementua sartu behar delako. Hala ere, uste dugu azterketa psikolinguistikoak beharko liratekeela ondorio sendotara iristeko.

2.2 azpiatalean ikusi dugunez, beste zenbait hizkuntzatan ere eredu hori bera jarraituz sortzen dute hizkuntza-jolasa, besteren artean, de Araujoren eta Agostinhoren (2014) lanean jasotzen den Brasilen egiten den *Língua do Pê* hizkeran, eta baita Costa Ricako *jerigonza* delakoan ere. Txertatzen den *-pB(K)-* silaba elementu lexiko eta gramatikal guztietan egiten da, ez esaldiko elementu jakinetan bakarrik¹⁷.

Jakina da euskara hizkuntza morfologikoki eranslea dela eta hitzak asko luza daitezkeela, kasu-markak bata besteari lotuz. Euskarazko apaepz aritzean ez dirudi hizkuntza naturaleko hitzen luze-laburra eragozpena denik, hitza laburra zein luzea izan, silaba guztietan *-pB(K)-* silaba txertatzen baita. Gure datuetan hitz luzeenak 5 silaba-koak izan dira, hala nola Oiartzungo lekukoak esandako *antolaketan* → *apan topo lapa kepe tapan* edo *arratsaldean* → *apa rrapa tsapal depe apan* hitzak. Pentsatzekoa da hitz laburrak errazago prozesatuko direla luzeagoak baino. Ibon Gaztañazpiren adierazpenek (§ 4.1) ere ideia hori indartzen dute, nahiz bera atzekoz aurrerako hizketa jolasaz ari zen.

17 Badira hizkuntzak elementu jakinetan egiten dutenak bakarrik (Kurabe, 2021, 55. or.).

Era horretako hizkuntza-jolasen beste ezaugarri bat da hizkera arruntean hitzek zein esaldiek duten esanahi bera gordetzen dela hizkuntza-jolasean. Ideia hori bera irakur daiteke Agostinhoren eta de Araujoren (2021, 220. or.) lanean ere: «They are semantically empty, which means that a string of language games shares the same meaning as their equivalent in the regular language».

Silabatzeari dagokionez, oro har hizkuntza naturaleko silaba banaketari eusten zaio hizkuntza-jolasa sortzeko. Adibidez:

- (28) *gas.na* → *gapas napa* (Izturitze)
ar.no.a → *apar nopo apa* (Izturitze)
or.du.an → *opor dupu apan* (Oiartzun)
e.ta. ge.ro → *epe tapa gepe ropo* (Oiartzun)
khi.a → *khipi apa* (Altzai)
e.khi.a → *epe khipi apa* (Altzai)
li.bri.a → *lipi bripi apa* (Altzai)

Silabak ekina¹⁸ eta gunea, nahiz silaba-gunea duenean soilik, silaba-muga errespetatzen da, goiko adibideetan ikusten den bezala. Esaterako, *e.khi.a* → *epe khipi apa* (Altzai) eta *e.ta. ge.ro* → *epe tapa gepe ropo* (Oiartzun). Silabaren kodan kontsonantea dagoelako eta hurrengo ekinean kontsonantea dagoelako kontsonante-taldeak elkartzen direnean, hala nola *khantan*, *ondo*, *gasna*, *ülhün* silaba-muga hizketa arruntekoaren bera da eta kontsonante-taldeak silaba banatan bereizten dituzte *khantan* → *khapan tapan*; *ondo* → *opon dopo*; *gasna* → *gapas napa* eta *ülhün* → *üpul hüpiün* bihurtuz. Nahiz eta euskarazko beste eremuetan <nh> eta <lh> kontsonante-bilkurarik ez dagoen, berriemaile zuberotarrek era honetako kontsonante-bilkurak dituzten hitzak apaepz ere ekoitzi dituzte¹⁹, adibidez: *eñheik* → *epeñ hepeik*²⁰ eta *belharra* → *bepel hapa rrapa*. Kasu horietan silaba-muga bi kontsonanteen artean kokatu dute, Mitxelenaren *Fonética Histórica Vascan* (1961/1990, 203.-204. or.) kontsonante-bilkura horien gainean esaten dena berretsiz: «Como advierte Lafon, se trata de *groupes disjoints*, es decir que el límite silábico pasa entre *h* y la consonante precedente».

4.3.3 Jariotasuna eta ekoizpen-arazoak

Hiztunen artean jariotasun maila desberdinak antzeman ditugu. Jariotasun handia dutenak eta hizketa jolasean aritzeko denbora hartu eta pentsatu behar izan dutenak daude dakitenen artean. Gure lekukoen kasuan, lehen taldean sartuko genituzke gehienak (Altzaikoak, Oiartzungoa eta Izturitzeko zenbait). Jakina da jariotasuna

18 Kontsonante batekoa zein bikoa, azken horiek oso ohikoak ez diren arren. Esaterako, *libria* ‘liburua’ zuberotarren kasuan.

19 <rh> bilkuradun hitzik ez dute ekoitzi, nahiz eta egon badauden. Adibidez, *ürhe*, *ürhats* (Mitxelena, 1961/1990, 203. or.).

20 Lehen aldian hitza ematerakoan *epe ñepeik* eman du, eta ondoren, berriz galdetuta, *epeñ hepeik* zuzendu du.

hizketa-jolasean aritzeak ematen duela, eta hizketa-jolasa egin ezean, herdoildu eta erraztasuna galdu egiten dela, lekukoek beraiek aitortu bezala.

Gogoan izan behar dugu apaepa hizkera unean bertan sortzen dela eta horrek erabateko arreta izatea eskatzen duela. Arreta galtzeak nahasmenduak eta jolasaren arauak erabat ez betetzea ekar dezake. Zenbaitetan, apaepa hitza esan ahala, zuzenketak ere egin dituzte, bai hiztun bakoitzak bere buruari, bai pareko solaskideari. Ondoren, hiztunek apaepa aritzean izan dituzten zenbait nahasmendu aipatuko ditugu:

- (29) *apheza* → *apha zepe zapa*, eta gero zuzendua *apa bepe zapa* (Altzai)
aphal → *apa bapal* (Altzai)
errege-txopita → *epe rrepe gepe txopo tipi tapa* (Altzai)

Lehenengo bi adibideetan, ikus daiteke hizketa naturaleko jatorrizko bigarren silabako ekina aldatu egin dela, lehenengoan <p>ren lekuan <z> eman du bigarren silaba hasieran eta gero, zuzendu duenean, , nahiz eta ez izan emaitza egokia. Bigarren adibideko bigarren silaban, <p>ren ordeztu eman du. Hirugarren adibidean, hitz elkartuaren bigarren elementuko hizketa naturaleko jatorrizko bigarren silabako ekina aldatu egin da, <t>ren ordeztu <p> eman baitu. Bildutako adibideetan hutsa ez da hitzaren hasieran gertatzen, hitz barruan baizik. Akatsa aipatu dugun arren, hiru kasuetan hotsaren aldaketa gertatu da, eta hiru kasuetan *p* hotsaz hasten da aldatutako silaba. Pentsa liteke jatorrizko silabak <p> izanik, eta silaba horren aurretik zein atzetik txertatzen den silabak ere <p> hotsa duenez, disimilazioa gertatu dela.

Ondoko kasuetan txertatu beharreko silaba ez sartzearen adibideak aurkitu ditugu. Ez dira asko, eta beti ere solaskideak elkarrizketan ari zirela gertatu dira:

- (30) *bon untsa* → *bopon un-tsapa* (Altzai)
a bai → *abapai* (Altzai)
intzaurra → *ipin tzapa urrapa* (Izturitze)

Adibide zenbaitetan aurkitu dugu txertatzen den silaban bokala ez dela errepikatzen, hizkuntza-jolas honetan ohikoa den moduan. Esaterako, Altzaiko bi hiztunek elkarrizketa batean hiru aldiz *ontsa* hitza *opun tsapa* ekoitzi dute, bokala aldatuz. Era berean, Izturitzeko hiztun batek *pikua* fruituaren izena eman du hizketa naturalean, eta aldiz, <o>rekin apaepa: *pipi kopo apa*.

5 OHARRAK EUSKARAZKO FONOLOGIAZ ETA PROSODIAZ

5.1 Fonologiak

Bigarren atalean aipatu dugun moduan, hizkuntza-jolasak hizkuntza arrunteko fonologiak jakiteko iturri izan daitezke, hizkuntza arruntean gertatzen diren bilakabide fonologikoak ere aurki ditzakegulako hizkuntza-jolasetan.

Bilakabide paradigmaticoek hiztunaren fonema inbentarioen berri ematen digute (Donegan & Stampe, 1979; Oñederra, 2004). Apaepe hiztunen jardunak ikusita eta alderatuta, berehala ohar gaitezke euskararen eremuan egon daitezkeen alde fonemikoak apaepenez ere ageri direla.

- Hasperena. Altzaiko hiztunek apaepenez ere hasperena erabiltzen dute, hizkuntza arruntean bezala. Espero genuen datua aurkitu dugu, beraz:

(31) *hitza* → *hipi tzapa*
bihotza → *bipi hopo tzapa*
hartza → *hapar tzapa*
zuhaintzia → *zupu-hapain-tzipi-apa* 'zuhaitza'

Oiartzungo ekoizpenetan hasperenik ez dagoenez gero, honelakoak dira adibideak: *haurrak* → *apa-upu-rrapak* eta *helduak* → *epel-dupu-apak*. Izturitzeko lekukoetan hasperena darabiltenak eta ez darabiltenak aurki ditzakegu, belaunaldiaren arabera gehienetan. Kontuan hartu behar da berriemaile gehienak gaztetxoak izan ditugula Izturitzen, eta hortaz, hasperena zenbait kasutan agertzen da eta zenbaitetan ez. Hiztunen artean desberdin ematen dituzte: adibidez, bi hiztun elkarrizketan ari direlarik, bata hasperenarekin ebakitzen du *Hamahiru, eta hik?* esaldia → *hapa mapa hipi rupu epe tapa hipik?* Solaskideak, erantzuna ematean, ez du hasperenik erabiltzen eta *hamabi* → *apa mapa bipi* esaten du. Gure corpusa ez da hasperena erabiltzen ote den edo ez ikusteko helburuarekin sortua; hala ere, bildutako materialetik datu interesgarriak atera daitezkeela uste dugu. Izturitzeko hiztun batek zenbakiak eta *hi* izenordea erabiltzen dituenen hasperena darabil eta beste hiztunengan kasu horietan ere ez da sistematikoa. Izturitzeko hiztunek hasperena sistematikotasunik gabe erabiltzen dutela ondoriozta dezakegu gure datuak eskuarte hartuta²¹.

- Dardarkariak. Dardarkaria ekoiztean ere ikusten da aldakortasunik hiztunen artean. Oiartzungo lekukoak dardarkari hobikaria darabil; zuberotarren artean hiztun nagusienak dardarkari hobikaria darabil, eta gaztexeagoa denak, ubularra. Izturitzeko berriemaileek, gaztetxoak denak, baita nagusiagoa den batek ere, dardarkari ubularra ekoizten dute.

Bilakabide sintagmatikoei begiratzen badiegu, 3. atalean Donegan eta Stamperen aipua jarri dugunean agertzen den moduan, hizketa arruntean gertatzen diren bilakabideak gertatzen dira apaepena aritzean ere. Bilakabide guztiak aipatzea luze joango litzatekeenez, bi bilakabide fonologiko aipatuko ditugu jarraian.

- Palatalizazioa. Palatalizazio bilakabideari dagokionez, ikus dezakegu Oiartzungo hiztunak, ditugun datuetara mugatuta, palataldu egiten dituela *i* ondoko <n> sudurkaria eta <t> herskaria, adibidez: *ginan* → *gipi ñapan* eta *genituen* → *gepe nipi ttupu epen*. Lekuko zuberotarrek <n> kontsonante

21 Hiztun berak hasperenarekin eta gabe ere ekoitzi ditu.

sudurkariaren palatalizazioa egiten dute: *gaztain* → *gapaz tapaiñ*²². Izturitzeko hitzunen apaepkakako jardunean ez da palatalizazio bilakabiderik antzematen, esaterako: *zitroina* → *zipi tropoi napa* eta *gaztaina* → *gapaz tapai napa* sudurkari hobikariarekin eta *ilarra* → *ipi lapa rrapa* albokari hobikariarekin egin baitute²³.

- Afrikatzea. Euskararen eremu osoan ohikoa da <n, r, l> ozen ondorengo txistukariaren afrikatzea eta apapez ere aurki dezakegu bilakabide hori, esaterako Oiartzungo hitzunik ‘antolaketan abaraxka egon zen’ perpausa *apan topo lapa kepe tapan apa bapa rapax kapa epe gopon tzepe* eman du, eta ‘bai, Luix egon zen’ perpausa *ba pa ipi lupu ipix epe gopon tzepe* eman du.

Gorago (2.2 azpiatalean) aipatu dugu Bagemihlen (1988) lanean agertzen den forma fonologikoa dela hitzunen abiapuntua, eta ez ortografikoa. Baieztape hori gure berriemaileengan betetzen dela esan dezakegu; izan ere, hitzun zuberotarren ekoizpeari begiratzen badiegu, ikusten dugu ez direla forma ortografikotik abiatzen *kea* hitza *khia* → *k(h)ipi apa* eta *baratxuria* hitza *batxuia* → *bapa txupu iapa* eta *euskara* hitza → *üpiux kapa* egiten dutelako, azken biak ttakaren galerarekin, idatziz ez bezala.

Hala ere, abiatze forman idatziarekiko harremana ere ikusi beharko litzateke; izan ere, Izturitzeko berriemaile batek, ikastolako irakaslea izanik, hitz bera egokiera desberdinetan bi moldetara emango lukeela aitortzen baitu. Esaterako, *kafa* hitza etxean *kapa fipi apa* emango lukeela adierazten du; eskolan, berriz, *kapa fepe apa*. Beraz, abiapuntu desberdinak dituela ikus dezakegu²⁴.

5.2 Prosodiaz

Atal honetan prosodiak besarkatzen dituen zenbait alderdi ukituko dira. Apaep hizkeran sortzen den erritmo erdua deskribatuko da, eta, horrekin batera, esaldi doinua apapez hizkera naturalean bezala gordetzen ote den aipatuko dugu. Diptongatzeari buruzko oharra ere egingo dira.

Euskarazko apapez aritzean sortzen den hizketa erdua erritmikoki ianbikoa da, esan nahi baita, hizkuntza arrunteko silabak, ondoren txertatzen zaionarekin batera, bi silabako oin erritmikoa osatzen duela eta oin erritmikoan nabarmentasuna bigarren silabak hartzen duela. Grafikoki adierazita, era honetako erritmo erdua luke: _ _ _ . Ikusi dugunez, lehenengo silaba hizkuntza arruntekoa litzateke eta bigarrena txertatzen zaiona da nabarmentasuna hartzen duena. Era horretako txertaketak egiten

22 Hitzun hauek <tt> eta <n̄> kontsonante palatalak badituzte hots biltegian, *apottorrua* → *apa popo ttopo rrupu apa* ‘igela’ eta *eñheik* → *epe ñepeik* ‘akitua’ adibideek erakusten digutenez.

23 *Arbittoa* hitza erabiltzen dute; kasu honetan <tt> herskari palatala -tto atzizki txikigarriarekin identifika daitekeenez, eskura ditugun adibideen faltan, kontsonante palatala unitate fonemiko beregaintzat har daitekeela susmatzen dugu.

24 Azterketa sakonagoa beharko litzateke hitzun bakoitzaren ibilbide soziolinguistikoaz eta bakoitzak idatziarekin duen harremanaz.

dituzten hizkera batzuek ere antzeko hautua egiten dute (Gil, 2022); honen ondoan, badira erritmo eredu trokaikoak sortzen dituztenak, hau da, oin erritmikoa bi silabakoa izanik nabarmentasuna lehenengo silabak daramana: *‘_ _ ’_’*. Azken era horretako eredia luke, esaterako, Kolonbiako zein Costa Ricako jerigonzak (Piñeros, 1998), gazteleratik sortutako aldaerek. Gazteleraz ari garelarik, ezin aipatu gabe utzi hitzen azentu lexikoaren indarra. Autorearen esanetan, jerigonzan azentu nagusia gorde egiten da dagokion silaban eta eskuinera zein ezkerrera dituen oin bitarretako elementuek azentu bigarrenkaria daramate, baina ez txertatutako silabak (PB). Esaterako, Kolonbiako aldaeran ‘canción’ → *càm.pa.cióm.po* litzateke eta Costa Rica-koan *cà.pan.ció.pon*.

Euskarara hurbiltzen bagara, eredu desberdin bat aurkitzen dugu, hizkuntzaren ezaggarri prosodikoak ere desberdinak dituelako. Gazteleraz azentu lexikoak indarra duela esan dugun moduan, euskarazko azentuaz egindako lanen artean nagusia den ideia da azentu lexikoak oro har ez duela beste hizkuntza zenbaitetan izan dezakeen nabarmentasunik (ingeleza kasu, neurri txikiagoan gaztelera)²⁵. Beraz, oro har euskaraz hitzaren azentu nagusia zein den jakitea ez da lan erraza. Horrekin batera aipatu behar da, hainbat autorek esan duten moduan, euskaren artean zuberera dela hitz azentu erregularrena duena, azkenaurrekoa nabarmentzen baitu (Mitxelena, 1961/1990). Hitzun zuberotarren apaepko jarduna entzunda, ez dirudi hizketa arruntez ematen dituzten hitzen nabarmentasunari apaepz eusten zaionik. Berriemaile zuberotarrek apaepz eman beharreko hitz solteak lehenik hizketa arruntez eman dituzte eta ondoren apaepz ahoskatu; hizketa arruntez azentu azkenaurrean nabarmentzen bada ere, apaepz nabarmentasuna galdu egiten da, oin biko erritmo ianbikoa gainjartzen zaiolako azentuari²⁶. Baieztapen hori nabarmentasuna egiten da berriemaileak apaepz elkarrizketan ari direnean. Oiartzungo eta Izturitzeko berriemaileen apaepzko jardunetan ere, oin biko erritmo ianbikoa nagusitzen da.

Prosodiarekin jarraituz, aipagarria da hitzunek apaepz kontaketa egiterakoan edo elkarrizketan ari direnean intonazio doinuak gordetzen dituztela: galdera doinua, kontaketa doinua eta abar. Batez ere esaldi laburrak dira esaldi doinua atxiki dutenak. Apaepzko jarduna dagokion esaldi moldeko intonazio doinuarekin egitea jariatutasunarekin lotua dagoela esan daiteke, Izturitzeko zenbait hitzunek ez dutelako intonazio egokiarekin egiten. Apaepka aritzeak arreta gehiago eskatzen duenean eta hizketa solasa erabat barneratua ez dagoenean, hizketa naturalean izango lukeen esaldi doinua apaepkari ematea nekezagoa dela esan daiteke, arreta hizketa sortzeko arauak errespetatzean jartzen delako. Apaepz zenbat eta jariatutasun handiagoa, apaepzko esaldi doinuak orduan eta antz gehiago du hizketa arruntaren esaldi doinuarekiko.

25 Hitz azentuaren nabarmentasuna batez ere erritmikoki azentu aldiko hizkuntzat hartu izan direnetan ikusten da. Euskara silaba aldiko hizkuntzat hartzen denez (Aizpurua, 2024; Hurch, 1998; Jauregi, 2008), euskaraz ez dugu baliabide hori aipatutako hizkuntza horiek adina ustiatzen.

26 Oharmenean oinarritu gara oraingo azterketan; aurrera begira, etorkizuneko zeregintzat uzten dugu trenabidezko azterketa akustikoak egitea.

Atalari amaiera emateko, diptongoen gainera gogoeta bat egin nahiko genuke. Eztabaida asko sortu duen gaia izan da diptongoen jokaerarena. Munduko hainbat hizkuntzatan diptongoek izan duten joera desberdina aztergai izan da autoreen artean. Euskaraz ere landu da diptongoen jokamoldearen gaia, esaterako Masayuki (2021) lanean. Autore horrentzat, eztabaidaren gai zentraletako bat da diptongoetako irristaria silaba-gunearen partetzat har ote daitekeen edo ez. Eztabaida horretan sartu gabe, diptongodun silabako bokala eta irristaria unitate bakartzat hartu eta txertatzen den silaban agertzea (eta bokala eta irristaria ez banatzea), erritmo ianbikoa izateak eragin, edo behintzat lagun dezake, oin erritmikoko bigarren zatia indartzen duelako. Hizkuntza-jolas honetan erritmoaren gailentzea erabatekoa da, ikusi dugunez. Euskaraz ianborako joera nagusitzen denez, nabarmendutako silabak pisua hartzen du. Hori izan daiteke arrazoa, era berean, txertatzen den silabara hizketa naturaleko silabako koda eramatea erraz lezakeena.

6 ONDORIOAK

Lan honetan euskarazko hizkuntza-jolasetan jarri dugu arreta, eta batez ere euskarazko hizkuntza sekretu bat izan dugu aztergai nagusia, Jean Barbierren izendapenari segituz «apaepe» deitu duguna. Kode berezi horretan norberaren hizkuntza doitua da hein batean, hizkuntza erritualetan gertatzen den antzera (Irurtzun, 2023), eta doitze hori ez da nolanahi gertatzen, patroi edo eredu jakin batzuen arabera egiten da. Gure lanaren helburu nagusia eredu hori zertan oinarritzen den deskribatzea izan da, arau fonologiko jakin batzuei jarraikiz egiten baita. Horretaz gain, apaepe hizkeran sortzen den erritmo eredu ere deskribatu da, eta, horrekin batera, esaldi doinua apaepaz hizkera naturalean moduan gordetzen dela erakutsi da. Diptongatzeari buruzko oharrek ere egin dira.

Euskarazko hizkuntza-jolas hori erabiltzen dutenen ezaugarriei buruz ikasi duguna bat dator Alidouk (1997, 8. or.) Nigeriako hizkuntza sekretuen gainera lanean dioenarekin: haur-hizkuntzarekin lotu izan bada ere, helduek ere erabiltzen dute, gehienetan haur denboran ikasi dutenek, eta emankorrakoak izan ohi dira baserri guneetako hiztunak hirietakoak baino²⁷.

Guk lan honetarako Zuberoan (Altzai), Nafarroa Beherean (Izturitze) eta Gipuzkoan (Oiartzun) aurkitu ditugu apaepa jarriotasunez aritzeko gai diren lekukoak. Arreta berezia jarri dugu erabiltzen dituzten ereduak erkatzean, alderdi gehienetan antzekoak baitira aztertu ditugun hiru herrietako ereduak. Salbuespena diptongoak tratatzeko erak azaleratu du. Gure kasuan, ikusteko gelditzen da landa eremuan eta herri txikietan gehiago edo gutxiago egiten ote den.

27 Alidouren baieztapena, landa eremuan eta herri txikietan gehiago egiten dela dioena, orokorra izan daiteke, edo testuinguru geografiko bati lotua. Gurean, landa eremua ez den eta herri txikia ez den Gasteizen apapez hitz egiteko gaitasun handia duten hiztunak badirela badakigu (nahiz gure ikerketarako ez ditugun jaso).

Etorkizunari begira, interesgarria litzateke landa vs hiria konparaketa hori egitea, eta baita semantikoki eta pragmatikoki apauekak zer nolako ñabardura ekartzen duen polikiago aztertzea ere: zergatik eta zertarako erabiltzen da? Hizkuntzarekin jositatzeko? Hizkuntzari xarma emateko? Plazer berezi bat izateko euskaraz? Sekretuki mintzatzeko aukera izateko? Erdaren joera indartsuari aurre egiteko? Herri gehiagotako lekuko apauekariak elkarriketatzeak ekar ditzake gakoak kontu hauek argitzen laguntzeko.

7 ERREFERENTZIAK

- Agostinho, A.L. & de Araujo, G.A. (2021). Playing with language: three language games in the Gulf of Guinea. *Language Documentation and Conservation*, 15, 219-238. <http://hdl.handle.net/10125/24974>
- Aizpurua, A. (2024). *Euskarazko bat-bateko bertsoen erritmoa. Taldekatzea, erritmo-ereduak eta silabatzea* [Doktore-tesia, EHU]. ADDI. <https://addi.ehu.es/handle/10810/69168>
- Alidou, O.D. (1997). *A phonological study of language games in six languages of Niger* [Argitaratu gabeko doktore-tesia]. Indiana University.
- de Araujo, G.A. & Agostinho, A.L. (2014). Fa do Vesu, a language game of Fa d'Ambô. *PAPIA*, 24(2), 265-281. <https://doi.org/10.5281/zenodo.3918973>
- Azkue, R.M. (1989). *Euskalerrriaren Yakintza I. Obitura eta sineskeriak*. Euskaltzaindia & Espasa Calpe. (Jatorrizko lana 1935ean argitaratua)
- Bagemihl, B. (1989). The crossing constraint and backwards languages. *Natural Language & Linguistic Theory*, 7, 481-549. <https://doi.org/10.1007/BF00205156>
- Bagemihl, B. (1995). Language games and related areas. In J. Goldsmith (arg.). *Handbook of phonological theory* (697.-714. or.). Blackwell.
- Barbier, J. (1971). *Antxintxarburuko buhamiak*. Ikas. (Jatorrizko lana 1895ean argitaratua)
- Bertinetto, P.M. (2004). On the undecidable syllabification of /sC/ clusters in Italian: Converging experimental evidence. *Italian Journal of Linguistics*, 162(2), 349-372.
- Botne, R. & Davis, S. (2000). Language games, segment imposition, and the syllable. *Studies in Language*, 24, 319-344. <https://doi.org/10.1075/sl.24.2.04bot>
- Davis, S. (1993). Language games. In R.E. Asher & J.M.Y. Simpson (arg.). *The encyclopedia of language and linguistics* (1980.-1985. or.). Pergamon Press.
- Donegan, P. & Stampe, D. (1979). The study of Natural Phonology. In D.A. Dinnsen (arg.), *Current approaches to phonological theory* (126.-173. or.). Indiana University Press.
- Donegan, P. & Stampe, D. (2009). Hypotheses on Natural Phonology. *Poznań Studies in Contemporary Linguistics*, 45(1), 1-31. <https://doi.org/10.2478/v10010-009-0002-x>
- EITB. (2015/09/23) *Zuek hor* [telebista emankizuna]. <https://www.eitb.eus/eu/telebista/programak/zuek-hor/bideoak/osoak/3492174/bideoa-ibon-gaztanazpi-atzekoz-auurrera-hitz-egiteko-gai-da/>

- Etxeleku, I. (2021/09/10). Apaepka hizkera mintzo dutenak bilatzen ditu Iker-ek. *Ipar Euskal Herriko hitza*. <https://iparraldeko-hitza.eus/2021/09/10/apaepka-hizkera-mintzo-dutenak-bilatzen-ditu-iker-ek/>
- Euskaltel. *Euskaltel Infinity* [telebista-iragarkia]. <https://www.youtube.com/watch?v=e-qi0uf4Tpmw>
- Euskaltzaindia. (1987-2005). *Orotariko Euskal Hiztegia*. https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_oehberria&task=bilaketa&Itemid=413&lang=eu-ES
- Euskaltzaindia. (1999). *Euskal Herriko Hizkuntz Atlasa. Obiko euskal mintzamoldeen antologia*. Euskaltzaindia.
- Gil, D. (2022). Monosyllables in Malay/Indonesian: a tale of two ludlings. *Radical: A Journal of Phonology*, 4, 45-100.
- Hombert, J.M. (1973). Speaking backwards in Bakwiri. *Studies in African Linguistics*, 4(3), 227-236.
- Hurch, B. (1988). Is Basque a syllable-timed language? *Anuario del Seminario de Filología Vasca Julio De Urquijo: International journal of basque linguistics and philology*, 22(3), 813-825. <https://doi.org/10.1387/asju.8013>
- Irurtzun, A. (2023). Ohar batzuk fonologiaren magiaz. *Anuario del Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo: International journal of basque linguistics and philology*, 57(1-2), 515-538. <https://doi.org/10.1387/asju.25966>
- Jauregi, O. (2008). *Euskararen silaba: egitura eta historia* [Doktore-tesia, EHU]. Eusko Jaurlaritza. <https://www.euskadi.eus/tesiker/euskararen-silaba:-egitura-eta-historia/oroitz-jauregi-nazabal/universidad-del-pais-vasco/facultad-de-letras/tesis/713>
- Kurabe, K. (2021). Introduction to ludlings and related phenomena. *Asian and African Languages and Linguistics*, 15, 1-8. <https://doi.org/10.15026/99892>
- Masayuki, I. (2021). Ludlings and glides in Basque. *Asian and African Languages and Linguistics*, 15, 21-29. <https://doi.org/10.15026/99894>
- McCarthy, J.J. & Plénat, M. (1991). L'infixation reduplicative dans les langages secret. *Langages*, 101, 11-29. <http://www.jstor.org/stable/23906695>
- Mitxelena, K. (1990). *Fonética Histórica Vasca*. Anejos del Anuario del Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo, IV. Gipuzkoako Foru Aldundia. (Jatorrizko lana 1961ean argitaratua)
- Oñederra, M.L. (2004). *Fonetika eta Fonologia hitzez hitz*. EHU.
- Piñeros, C.E. 1998. *Prosodic morphology in Spanish: Constraint interaction in word formation* [Doktore tesia, The Ohio State University]. RUcore. <https://doi.org/doi:10.7282/T3222SMR>
- Storch, A. (2017). Typology of secret languages and linguistic taboos. In A. Aikhenvald & R. Dixon (arg.). *The Cambridge handbook of linguistic typology* (287.-322. or.). Cambridge University Press. <https://doi.org/10.1017/9781316135716.010>
- Vaux, B. (2011). Language games. In J. Goldsmith, J. Riggle & A.C.L. Yu (arg.). *The handbook of phonological theory* (722.-750. or.). Wiley. (Jatorrizko lana 1995ean argitaratua). <https://doi.org/10.1002/9781444343069.ch22>

